



LURPEA GARBI INGURUMENA ELKARTEAREN ETA ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

Tolosa, 2024eko martxoaren 19an

BILDUTA

Beste alde batetik, **Uxue Lasa Ameztoy anderea**, LURPEA GARBI INGURUMENA Elkartearen ordezkari eta izenean, I.F.K.: G44716090 Larrea sakabanuta 006 01 a (20150, Villabona - Gipuzkoa) helbideratua.

Beste alde batetik, **Jokin Otamendi Azurmendi jauna**, Aranzadi Zientzia Elkartearen ordezkari eta izenean, I.F.K.: G-20059135, Zorroagagaina 11n (20014, Donostia - Gipuzkoa) helbideratua, 1947an sortutako erakundea eta 2001eko azaroaren 13ko 287/2001 Dekretu bidez herri-onurako erakunde izendatua, bere Estatutu Sozialetako 23. artikulua araberak ekitaldi hau gauzatzeko behar adina ahalordez jantzia.

ADIERAZTEN DUTE

LEHENIK: LURPEA GARBI INGURUMENA, Tolosaldean sortu berria den Elkartea da, eskualdeko hainbat leize eta kobazuloen egoera zikina kezkaturik, zaborrez beteriko gune natural hauek garbitzeko eta jatorrizko izaera naturalera bueltatzeko asmoarekin. Horretarako, beste eskualdeko hainbat erakundeekin leize eta kobazuloen berreskurapena eta garbiketa sustatuko ditu.

BIGARRENIK: 1947an sortua den Aranzadi Zientzia Elkartek bere estatutu-helburuetako bat dela zientzia-ikerketak eta azterketa teknikoak gauzatzea natur inguruneari eta giza inguruneari



berez dagozkien arazo eta aferetan, dela horren alderdi hutsean dela horren alderdi aplikatuan, baita dagozkion ezaupideak eta eginiko ikerketen emaitzak jendarteratzea eta Arkeologia, Etnografia eta Natur Ondarea babestu eta zaintzea ere (Elkartearen Estatutuak, 2002-03-25).

HIRUGARRENIK: Aranzadi Zientzia Elkarte Irabazteko Asmorik Gabeko Erakunde bat dela, Eusko Jaurlaritzak Herri Onurako elkarte izendatua 2001eko azaroaren 13ko 287/2001 Dekretua dela medio.

LAUGARRENIK: Lurpea Garbi Ingurumena Elkarte eta Aranzadi Zientzia Elkarteak gure ondare karstikoaren eta ingurumenaren alde lan egiten dute, eta interes hau hainbat esparrutan sarean lantzea interesagarria ulertzen dute.

KLAUSULAK

LEHENA: Hitzarmenaren helburua.

Honako hitzarmen honen helburua “LURPEA GARBI INGURUMENA Elkartearen” eta “Aranzadi Zientzia Elkartearen” arteko lankidetzak-markoa ezartzea da.

BIGARRENA: LURPEA GARBI INGURUMENA Elkartearen betebeharra.

Lurpeak konpromisoa hartzen du Aranzadi Zientzia Elkarteari garbiketak egingo diren lekuen berri emateko, eta, material interesgarriak aurkituz gero, Aranzadi Zientzia Elkarteari jakinarazteko, metodologia egokiarekin lan egiteko eta neurri egokienak hartzeko..

HIRUGARRENA: Aranzadi Zientzia Elkartearen betebeharra.

Aranzadi Zientzia Elkarteak ondare arkeologikoaren alorrean aholkularitza tekniko emateko konpromisoa hartzen du. Batez ere historiaurrean alorrean, Gipuzkoako kobazulo eta leize ugarietan garaiko aztarna arkeologikoak eta hezurak aurkituak izan direlako. Garbiketak gauzatu aurretik alor honetako informazioa eman ahal izateko.

LAUGARRENA: Jarraipen Batzordea.

Ezarritakoa eta koordinazioa beteko direla ziurtatzeko, hitzarmen honen jarraipen-batzorde bat eratuko da.



Jarraipen-Batzordeko kideak hauek izango dira:

- a) Aranzadi Zientzia Elkartearen aldetik izendatutako persona bat.
- b) LURPEA GARBI INGURUMENA Elkartearen aldetik: izendatutako persona bat.
- c) Jarraipen-batzordea gutxienez urtean behin aliz bilduko da eta, azalpenezko izaeraz soilik, ondoko zereginak izango ditu:
 - 1. Gauzatu beharreko jardueren urteko azterketa eta berauen egutegia finkatzea.
 - 2. Hitzarmen honen garatzeko koordinazioa eta jarraipena egitea.

BOSTGARRENA: Hitzarmenaren indarraldia.

Honako hitzarmen hau izenpetu ondorengo egunaz geroztik izango ditu ondorioak, eta urte naturaletan luzatuko da, urte bakoitzeko urtarrilaren 1a baino lehen alderdietako edozeinek espresuki salaketaren bat jarri ezik.

Nolanahi ere, hitzarmenaren benetako indarraldia ikerketak amaitu, argitaratu eta emaitzak jendarteratu ostean amaituko da. Halare, jarraipen batzordeak erabakiko du , lanaren garapenaren eta aurrekontuaren arabera proiektuaren amaiera.

ZORTZIGARRENA: Hitzarmena deusezteko arrazoiak.

Hitzarmen hau deuseztu ahal izango da:

- a) Izenpetzen duten bi alderdiek hala erabakita.
- b) Alderdiek hartutako konpromisoak larriki ez betetzeagatik.

SEIGARRENA : Ez-betetzea.

Hitzarmen honetan ezarritako baldintzetako edozein ez betetzea, hitzarmena berraztertzearen kausa izan daiteke eta, kasu horretan, hitzarmena baliogabetu eta bidegabe jasotako diru-zenbatekoak itzularaztea ekar lezake.

Ados daudelako froga modura, esku hartzen duten bi alderdiek honako Lankidetza Hitzarmen hau izenpetzen dute, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean.

Eta goian azaldutakoarekin ados daudela frogatzeko, bi alderdiek honako Hitzarmen honen bina kopia izenpetzen dute, adierazitako egunean eta lekuan.



ARANZADI

zientzi elkartea . society of sciences
sociedad de ciencias . société de sciences

Aranzadi Zientzia Elkartearen Lehendakaria

Izpta.: **Jokin Otamendi Azurmendi**

Lehendakaria

LURPEA GARBI INGURUMENA

Izpta.: **Uxue Lasa Ameztoy**

Lehendakaria